

Hamar urte igaro dira dagoeneko Europan azken hamarkadetan izan den gertakari politiko garrantzitsuenetako batetik. Eskoziak bere etorkizuna erabaki zuen modu demokratiakoan. 3.623.344 lagunek eman zuten botoa. Hau da, ia %85eko partaidetza izan zuen, edozein hauteskunde %55 eta %60koaren bueltan egon ohi denean. Horrek ematen dio eskoziarrek hartutako erabakiari tamaina.

Datu horrek erakusten du zitaren garrantzia. Eskoziarrek beren gain hartu zuten euren burua gobernatzeko ardura eta Londresi lotuta jarraitzea erabaki. Egun hura, gainera, bi urteko kanpaina luze baten ostean iritsi zen. Tarte horretan, kaleetan apenas nabari zitekeen erreferendum baten atarian zeudela. Baina ekitaldi eta hedabideetan eztabaida sutua izan zen denbora luzez.

Eta aberasgarria. Izan ere, gauza bere horretan mantentzea erabaki arren, Eskozia ez zen inoiz berdina izanen. Herriarrak ahaldundu egin ziren eta, ordura arte ez bezala, gazteak eztabaida politikora gerturatu zituen galdeketa hark.

Oraingoz, Nicola Sturgeonek bere aginteko zortzi urte luzee-tan behin eta berriz zin egin arren, urrun ikusten da bozketari berri bat. Londresek ezetz dio, ez dela unea, eta orduko lehen ministro eskoziar Alex Salmond hitzak baliatuz (belaunaldi batean aukera bakarra izango zela esan zuen), aukera hori ukatu du behin eta berriz. Boris Johnsonek, bere ohiko tonua erabiliz, 2054ko data eman zien eskoziarrei. Urrun.

Egun hauetan ekitaldi ugari izango dira herrialde osoan zehar, hamargarren urteurrena gogoratzeko. Mobilizazioak, unibertsitateetan hitzaldi bereziak, antzerkiak, ekitaldiak... Izan ere, orduan hartutako erabakia bizi-bizi dago.

ESTRATEGIA GABEZIAK

Bizi-bizi, baina «okerrerako», dio Eskoziako orduko lehen ministro Alex Salmond. «Eskoziak okerrago dago orain alderdi posible guztietan». «The Scotsman»-en egindako elkarriketan, Alba alderdiko buruak adierazi du bere lehengo alderdiak, SNPk, «pentsamendu estrategiko falta larria» izan duela, eta horrek «egoera okerragoan utzi duela Eskozia».

«Nire ustez, bai politikan bai ekonomian falta den osagai nagusia itxaropena da. Eskozia oso toki itxaropentsua eta baikorra zen duela hamar urte». Izan ere, independentziaren aldeko kanpaina zerbait nabarmentzekotan, Eskoziaren balizko independentziari buruzko mezu positiboa izan zen hura.

Eta Salmond balizko Eskozia independente horretan kokatu du bere burua. «Pentsatu nahi nuke Eskoziak independentziaren aldeko botoa eman izan balu, nik karguan jarraituko nuela, eta karguan jarraitu izan banu, SNPren politika oso desberdina izango zela. Ez naiz independentziaz hitz egin ari; Eskoziako gizarteko beste gai batzuei buruzko ikuspegiez ari naiz».

Eta baikor dago. «Egia esan, errazagoa da egungo egoeratik independentziara iristea, 90eko hamarkadan edo duela 20 urte baino. Duela hamar urte bolada oso-oso-oso ona hasi zen. Azken bost urteetan, bolada oso txarra izan dugu. Baina



ESKOZIAK ERABAKI ZUEN

Hamar urtez iraun duen egun bat bizi izan zuen Eskoziak 2014ko irailaren 18an

HISTORIA / Aitor AGIRREZABAL

Irailaren 18 honetan hamarkada bat beteko da Eskoziak bere etorkizuna aukeratu zuenetik. Eztabaida sanos eta zirraraz jositako kanpaina bati txapela jarri zion egun hark. Eta bozken %55ek «status quo»-a mantentzea erabaki bazuten ere, Eskozia betiko aldatu zuen egun hark. Eta gehiago aldatzeko itxaropena mantendu da.



bolada txar hori pentsamendu estrategikorik ezak eragin du».

Kanpaina positibo hark, Salmondek gain, beste aurpegi bat izan zuen nabarmen bes-teen gainetik. Blair Jenkins. Yes Scotlandeko zuzendari exekutibo ohiak aste honetan bertan "The Daily Record" egunkariari eskainitako elkar-ritzketan adierazi duenez, baiezkoren kanpainak «ezin- go zuen ezer desberdinik egin» independentziari bu-ruzko erreferendumean. «Ez du esan nahi kanpaina perfek- tua izan zenik edo ikasgairik ikasi ez zenik».

Izan ere, nabarmendu due- nez, «independentziaren alde- ko botoa kanpainaren hasie- ran inork uste baino askoz ere altuagoa izan zen azkenean, eta hori oso kanpaina ona egin genuelako gertatu zen». Inkestek botoen %20 baino ez zioten ematen bozketa baino urtebete lehenago, eta 2014ko irailaren 18an %45eraino igo zen kopuru hori.

Eztabaida hartako gai na- gusietako bat moneta izan zen. Kritikak egin dizkiotenak oker dabiltzala uste du. Eta puntu horretan zerbait beste era batera egiteak ez zuela ezer aldatuko dio. «Badakit baiezkoko jende askok esaten duela bestelako diru-politika izan bagenu, irabaziko genue- la. Baina monetari buruzko inkesta asko begiratu nituen, ez publikoak bakarrik, baita pribatuak ere. Eta lehentasu- na, independentziaren alde egon ala ez, librari eustea zen», adierazi du.

Salmondek, aldiz, gogoeta he- dabide jakin batek jokaturako rolera darama. Alex Salmondek "The Scottish Sun"-ek indepen- dentzia ez babesteko hartutako erabakiak emaitza baldintzatu zuela dio. Lehen ministro ohia- ren ustez, «inpaktu handia» izango zuen herrialdeko tabloi- de nagusiak baiezkoren aldeko apustua egin izanak, eta horre- kin espekulatu zen, hain zuzen, 2014an. Rupert Murdochek -be- re News Corp inperio mediati- koa zen egunkariaren jabea- txio sorta bat argitaratu zuen hura kontuan hartzen ari zela iradokiz, eta aurretik SNPren al- de egin zuen. Izan ere, 2012an, honako hau txiokatu zuen: «Utz iezaiozue Eskoziari joaten eta lehiatzen. Denek irabaziko du- te». Eta Salmond bera «Erresu- ma Batuko politikaririk distira- tsuena» zela deskribatu zuen.

Duela 10 urte, kanpainaren azken txanpan, baiezkoren aldekoak ziren nagusi kalean. Irudian, Glasgow. Gorka RUBIO | FOKU

Alex Salmondek, kanpainan zerk huts egin zuen galdetuta, hedabide jakin bat konbentzitu ez zutela dio. «The Scottish Sun» egunkariak ez zien esan irakurleei zer boto eman

Beste erreferendumik izango ote den galdetuta, batasunaren alde egiten duten bi parlamentarik argi dute: baietz. Baina ez oraingoz, eta gainera emaitza bera izango duela diote

Baina azkenean, erreferenduma- ren aurreko egunean egunka- rian argitaratutako editorial lu- zean, adierazi zuten ez ziela esango irakurleei zer boto eman.

«Gauzak ez dira beti norberak espero bezala ateratzen. Espero nuen kanpainaren arrakastaren eraginez dominoko hainbat pie- za eroriko zirela. Bereziki, zen- bait egunkari konbentzional baiezkoren ondora pasatuko zirela pentsatu nuen. Bat berezi- ki, gertatu ez zena, lastima izan zena. Uste nuen "The Sun" baiezkora pasatuko zela kanpai- naren azken astean. Eragin han- dia izango zuen guretzat», gehi- tu du lehen ministro ohiak.

Izan ere, eskemetan aldaketa handia suposatuko zuen. «Indar handiak genituen kontra, eta kanpainaren alderdi fisiko guz- tietan desabantailan geunden: diruan, finantzaketan, establish- ment-aren boterean, komunika- bide tradizioaletan... Beraz, gu- re alde zerbait erortzea eragin handikoa izango zen».

BESTE GALDEKETARIK?

Independentziaren aldeko ez haratago, duela hamarkadako erreferendumak oinarri sen- dorik bazuen, gizarte osoak emandako legezkotasuna izan zen hura. Orduz geroztik, in- dependentziaren aldeko inda- rrak tai gabe aritu dira beste galdeketa baten eske, baina Londresek baimena ukatu du, eskatu duten guztietan.

Horregatik, Erresuma Batua- ren batasuna babesten duten bi pertsonarengana jo dugu: Andrew Bowie kontserbadorea eta Michael Shanks laborista. Bowiek, 37 urtekoak, Erresuma Batuko azken gobernu kon- tserbadoreetan hainbat postu izan ditu eta parlamentaria da. Shanks bezala. Kasu horretan, Alderdi Laborista ordezkatura.

Eskoziaren independentziari buruzko beste erreferendum bat izango ote den galdetuta, argi erantzun du Bowiek. «Za- lantzarik gabe, etorkizunean egongo da». Eta erantzuna argi- tu du. «Zilegi da Eskoziak hori egitea? Erabat. Zilegi da norbaitek sinestea Eskoziak independentea izan beharko lukeela? %100ean». Baina bere alderdiak azkenaldian erabili- tako argudioa ere bere egiten du: «Horretan jarri behar du- gu arreta oraintxe? Ez».

Shanksek antzeko erantzuna eman du. «Uste dut beste erre- ferendum bat izango dugula unereren batean, baina uste dut ziur aski azkenaldiko emaitza berarekin amaituko dela».

2020an, oraingo lehen mi- nistro Keir Starmerrek esan zuen SNPk bigarren indepen- dentzia erreferenduma egite- ko agindua izango zuela Holy- rooden gehiengo osoa irabaziz gero. Hala ere, Eskoziako hau- teskunde sistema alderdi ba- ten gehiengo osoa saihesteko diseinatuta dago.